

# BALEIKE

237. ZENBAKIA. EURO BAT  
2014ko AZAROA

[www.baleike.com](http://www.baleike.com)



## BADATOR GOMEZAGO

Josu Waliñok eta  
Ander Hormazurik  
sortutako ipuina  
argitaratuko du  
Baleikek

**ERREPORTAJEA: IRAKURLE TALDEA, IRAKURTZEAREN PLAZERRA**



# A25

Emakumeenganako  
Indarkeriaren Aurkako  
Nazioarteko Eguna

Zeuk erabaki zer egin

Ezetz esateko eskubidea duzu

Ez onartu zu pertsona ahultzat hartzea

Kontatu zer gertatzen zaizun konfiantzako pertsona bati  
Hasieran, prozesua gogorra izan daiteke, baina denborak  
aurrera egin ahala, hartutako erabakiaz poztuko zara  
Asko dira, zure egoera berean daudenak

**Ez justifikatu, ez onartu,  
aurre egin egoerari**

Nora jo dezakezu?

Gizarte Zerbitzua .....	943 86 22 00
Udaltzaingoa .....	943 14 32 32
Berdintasun saila .....	943 86 10 56
SOSdeiak .....	112
Biktimari Laguntzeko Zerbitzua .....	900 10 09 28



Zumalako Udala

Orain Zumalako  
merkatariak  
sarean

50 €-ko baloa duen opari txartela  
lortu webgunean erosketa egiteagatik

\*Lehenengo 50 €-tik gora 10 erosketentzat.  
Opari-txartelak denda fisikoetan erabiltzeko dira.  
Pertsona batek opari txartela bakarra lor dezake.



zumartian



www.zumartian.com

# BALEIKE 237

8

baleike +

## GOMEZAGO, IMAJINARIOTIK LIBURURA

A. Hormazuri



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkartea

e-maila: elkartea@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustin Zubimendi eta

Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietea, Izaskun Urbietea eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

azubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Legu gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



5

hitz-tantak

OLATZ BERASTEGI

13

elkarrizketa

JOSU WALIÑO

24

erreportajea

IRAKURTZEAREN

PLAZERRAREKIN

GOZATZEN

DUTENEN GUNEA

30

bertso sorta

ERROTABERRI

BERTSO ESKOLA

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udalak



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO



TOKIKOM



**Arrain eta mariskoak**

**Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak**

Zuloaga plaza, 1  
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8  
20750 Zumala (Gipuzkoa)

**Diselnu zerbitzuak**  
tel.: 943 14 31 22

**Kopiak eta materiala**  
tel./Faxa: 943 14 31 20  
www.a3zumaia.com  
a3@a3zumaia.com

a3 kopia eta diselnu zerbitzuak




**L I B R R U R U D E N D A**

**AIZPURUA**

Aita-Mari auzategia, 17  
tel. 943 861 569

Egin zaitez **BALEIKE**ko bazkide



**ALBERDI**  
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188  
943 143261

Egin zaitez **BALEIKE**ko bazkide




**ANA**  
ETXeko ZAPATAK

Ignacio Zuloaga enparantza  
tel. 943 861 157    ana@etxekozapatak@telefonica.net

Egin zaitez **BALEIKE**ko bazkide




**D'Ana**

Kantauri plaza, 6, behea    tel. 943 117 406

**Ardantzabide**  
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com




Denda: Txomin Agirre, 4    Aroztegia: Santiago, 40  
Tel.: 943 862 532    Tel.: 943 861 631

**ARGISUN**  
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5    www.argisun.com  
tel. 943 861 995    info@argisun.com

**OKINDEGIA**  
Arrikupe

Naparra, 21 - tel. 943 501 501  
ZUMAIA

**OGI-EDER**



**ARRUTI**  
Baltasar Etxabe 2/0  
Zumaia 943016429



**AUTOS ZUMAIA**

Urola plaza, 3-5    tel. 943 861 485



**Bakun**  
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25    tel./faxa 943 148 306  
20749 Arroa    bakun@bouskainet.net



**Basadi albaitaritza**

Ribaitario  
Iñaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310  
www.maribelbasadi.com  
www.basadi.com

Golbez: 11-13 / Arratsaldeko: 16-19:30 / Astebeteen golbez eta larunbeteen bitartean  
Lanaldietarako: 605 728 737    Etxez etxeko zerbitzua



**BASUSTA**  
erretegia • asador

José Blázquez

Patxita Etxezarreta, 25    Tel.: 943 86 20 73  
20750 Zumala (Gipuzkoa)    943 86 04 38  
asadorbasusta@hotmail.com



**Braky's**  
Okindegia • Katedegia

Izaga kalea, 2  
20750 Zumala (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 57 07 79  
Móvil: 649 967 289

# “Arazo genitalak ditugunean erabiltzeko zerbitzua dela pentsatzen da, baina ez da hori bakarrik”

TESTUA: IZASKUN URBIETA  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Bigarren urtez sexologia zerbitzua jarri du martxan Udalak Olatz Berastegi sexu aholkulariaren bitartez. “Sexualitateaz hitz egiteko espazio gutxi daude, baina, era berean, gizarte hipersexual eta hiperrerotizatu batean bizi gara, eta mota bateko sexualitatea saltzen da bertan” aipatu du. Horrek zalantzak, galderak eta gatazkak sortzen ditu pertsonengan eta horiek argitzeko bidea zabaldu nahi da doako aholkularitza honen bidez.

Sexologia ikasketez gain, Gestalt terapian eta bikote terapian ere formazioa du. Saioak astean bitan izaten dira Beheko Plazako gizarte zentroan: ostegunetan (11:00-13:00) eta ostiraletan (17:30-19:30).

### Zer eskaintzen du sexologia zerbitzuak?

Pertsona bati sexualitate arloan gerta dakiokkeen edozein zailtasun eta gatazka bideratzeko zerbitzua da. Nola ager daitezke gatazka horiek? Bikote harremanetan, ligatzeko garaian zailtasunak izatea, norbere buruarekin autoestimua falta: gaizki sentitzen naiz neure buruarekin, neure gorputzarekin eta kosta egiten zait harremanetan egotea...

### Nolako arazoekin etortzen zaizu jendea?

Denetarik dago. Adibidez, zailtasun genitalak dituztenak etortzen dira: isurketa goiztiarra edo baginismoa dutenak. Baina bikoteen arteko gatazka konpontzera ere etortzen da jendea: komunikazio txarra dela eta, antisorgailuen erabilera, desio falta...

### Adinaren arabera aldatu egiten dira zalantzak?

Nik uste dut aipatu ditudan zalantza horiek adin guztietan izaten direla. Badaude beste zalantza mota batzuk, baina ez adinaren arabera, bikotearen arabera, baizik. Alegia, segun eta zer momentutan dagoen bikotea, zailtasun bat edo beste topatuko dute. Harremanaren hasieran badaude, beharbada ez da egongo zailtasun handiegirik, baina harremanak aurrera

jarraitzen badu eta seme-alabak badituzte, hor beste gatazka batzuk izango dira. Hirugarren adinean beste batzuk ere sortzen dira. Labur esanda, badaude gatazka batzuk adin jakin bati dagozkionak, baina badaude beste gatazka batzuk edozein adinetan gerta daitezkeenak.

### Nori zuzendua dago?

Herritar guztiei. Ikastetxetan Lehen Hezkuntzan ere ibiltzen gara sexu hezkuntza lantzen, baina uste dut aholkularitza zerbitzua DBHko 4. mailatik aurrera dela egokia. Azkenean, garai horretan hasten gara harremanetan eta gatazka orduan sortzen dira.

### Konfidentzialtasuna bermatzen duzue zerbitzuan.

Bai, hori da. Horrekin esan nahi duguna da esku artean ditugun datu horiek ez direla inon argitaratzen. Jendeak izena ematen du, jendearekin lan bat egiten da, baina datu horiek ez dira inorekin kontrastatzen. Noski, pertsona jakin baten arazoa beste pertsona batek aztertzea hobesten badut, mediku batek, adibidez, orduan baliatzen dira datuak. Bestela, konfidentzialtasuna bermatuta dago.

### Sexu harreman genitalekin lotzen da askotan sexologia zerbitzua, baina ez da hori bakarrik.

Askotan pentsatzen da sexologia aholkularitza arazo genitalak ditugunean erabiltzeko zerbitzua dela, edo horretara mugatuta gaudela, baina ez da hori. Sexologia sexuen zientzia da. Guk, sexologoek, emakume eta gizon izateak

dakarren, nola joaten garen eraikitzen eta gure artean dauden harremanak aztertzen dugu. Arazo genitalak gertatzen dira bide horretan, baina arazo bera ez zaio tratatzen berdin pertsona bati edo beste bati. Azkenean, pertsona bakoitzak izaten ditugu ezaugarri batzuk, bizitza eredu bat, heziketa mota bat... Aholkularitza zerbitzua, azkenean, terapia eta hezkuntzaren artean dagoen zerbitzua da.

### Sexua oraindik gai tabua da? Hortaz hitz egiteak lotsa ematen digu oraindik?

Neurri batean ulertzen dut lotsa izatea, eta gai honetaz hitz egitea kostatzea, baina egia da behar handia ere badagoela. Hasiko bagina elkarki kontatzen benetan nola bizi dugun sexualitatea eta gure errealitatea zein den, zailtasun gutxiago izango genituzke. Arazoa gertatzen da askotan gai honetaz broma edo txiste tonuan hitz egiten dela eta dimentsio ikaragarria hartzen duela.

### Badut lagun bat arazo hau duena... Horrelakoak esanez etortzen zaizu jendea?

Ez bada eskolan, klase

“Badaude gatazka batzuk adin jakin bati dagozkionak, baina badaude beste batzuk edozein adinetan gerta daitezkeenak”

batean... Ez. Nik ulertzen dut horrela galdetzea gauzak, baina aholkularitzara datozenak norbere arazoak galdetzen dizute.

### Oso barneratuta daukagu zahartzean sexu desioa galdu egiten dela?

Jendeak hori uste du, baina ez da desioa galtzen zahartzean. Badago pelikula espainiar bat *La vida empieza hoy* izenekoa, hirugarren adineko sexuaz hitz egiten duna. Pelikula horretan adierazi nahi da gure gurasoek ere sexualitatea dutela. Zer gertatzen da? Norbere gurasoak ez dituela sexualizatzen, eta, era berean, askotan jende heldua ere ez. Baina badute, eta desioa ez da joaten, aldatu egiten da. Gogo sexuala beti dugu, pertsonak garelako eta gorputza dugulako. Afektibitatea, maitemina, desioa... beti dago. Horretaz gain, txortan egiten dutenak ere badaude. Ez egitearen arrazoia arazo fisikoak izaten dira normalean, lehen esan bezala, gogoia ez baita joaten.

### Especialistarena joan beharrean (lotsa ematen duelako, adibidez) eta inguruko jendearekin hitz egitea, ez al da kalterako?

Nik uste dut gauza batzuk hobeto direla espezialistarekin hitz egin, kasu honetan sexologoarekin. Lagunak lagunak dira, eta emozionalki zurekin inplikazio bat dute. Orduan, emango dizkizuten aholkuak, ziur aski, beraien inplikazio emozionalatik ateratakoak izango dira, ezin dute distantziarik

**HARREMANETARAKO:**  
Beheko plazako gizarte zentroan, 2. solairuan. Zuzenean azaldu daiteke, edo nahiago bada hitzordua eskatu helbide elektronikoa bidez (sexologiazerbitzua@zumaiakoudala.net) edo 609 606 777 telefonora deituta.

begiratu askotan, eta agian ez da behar duzuna.

**Teknologiari esker pertonekin harremanetan jartzeko eta komunikatzeko eredia aldatu egin da.**

Bai, aldatu egin da eta hori da, gainera, datorrena, nerabeekin batez ere. Ni ez naiz eredu horren kontrakoa. Ez dut uste txarra denik, eta bere alde positiboak ere baditu. Teknologia berrien bidez, adibidez, jende batek (ez dena tabernara ateratzen, ez duena ligatzen...) beste modu bat aurkitu du ligatzeko. Espazio birtualak daude horretarako. Nik uste teknologiak lagundu ahal duela, beste gauza bat da ematen zaion erabilera. Baina hori gauza guztiak bezala da, eta hori landu egin behar da. Hori bai, horrelako harremanetan beste formula batzuk ikasi behar dira. Nik, adibidez, gomendatzen dut Internet bidezko harreman bat ez asko luzatzea. Alegia, Interneten ezagutu baduzu pertsona,

geratzea berarekin. Bestela, fantasiarako bidea irekitzen da, eta aurrez aurre ikusten duzunean espektatibak eror daitezke. Nik uste dut lehenengo kontaktua egiteko eta pertsonak ezagutzeko bide ona dela, baina harreman bat sendotzeko, geratu egin behar zara.

**Guraso eta seme-alaben arteko erlazioa sexuaren inguruan. Nola ikusten duzu?**

Bakoitzaren rola zein den ongi jakin behar da. Gurasoekin ondo eramateak ez du esanahi seme-alabek beraien intimitatea beraiekin konpartituko dutenik. Beharbada kontatuko du semeak edo alabak ligatu duela, baina ez zer egin duen.

**Espektatibak ez betetzea, lehen aldia, zakilaren tamaina dela eta ez dela... Ez dugu geure burua gehiegi estutzen?**

Azkenean estereotipoak eta mitoak hor daude, eta ez hitz egiteak askotan eramaten gaitu pentsatzera

**“Gomendatzen dut Internet bidezko harreman bat ez asko luzatzea; geratzea berekin”**

gure harremanek era batekoak izan behar dutela. Hori ez da horrela, eta ez digu laguntzen. Horregatik hitz egin behar da.

**Hori armairutik atera da, neska hori marimutil hutsa da... Hitz desegokiak eta mingarriak, baina oraindik ere oso erabiliak, ezta?**

Bai, hala da. Badirudi homosexual batek esan egin behar diola munduari bere orientazioa zein den, eta esan arte ez dela homosexuala, gainera. Marimutilarena ere oso

erabilia da. Kasu horietan identitatea eta orientazioa nahasi egiten dira. Mutil bat femeninoa bada, gaya izan behar du, adibidez. Baina esan behar da mutil guztiak dituztela gauza femeninoak eta neskek ere bai gauza maskulinoak. Baina hemen ere estereotipoak ditugu, eta alde femenino eta maskulino batzuk negatiboagoak ikusten dira beste batzuk baino. Batez ere estetikarekin zerikusia dutenak.

**Nola animatuko zenuke zurena joateko zalantzan dagoen pertsona bat?**

Ulertzen dudala lotsa izatea, baina askotan horrek blokeatu egiten gaituela. Horregatik, lotsa alde batera utzi eta lehenengo pausoa emateko aholkatuko nioke. Arazoa bideratzeko aukera ederra da. Gizarte honetan badirudi denaz jakin behar dugula eta ez da horrela. Mugatuak gara eta batzuetan behar dugu beste batek entzutea, eta aholkuak jasotzea. ■

# GOMEZAGO, IMAJINARIOTIK LIBURURA

Gabon garaia heltzean, txapela buruan jantzi eta zumaiarren artean paseatzen aritzen da Gomezago, espiritu forman bada ere. Aurten, ordea, herriko mitologiako pertsonaia hau marrazki moduan gorpuztuta ikusteko aukera ere izango dugu, Josu Waliñok eta Ander Hormazurik sortu eta Baleike kultur elkarteak argitaratuko duen Gomezagoren gutuna liburuan. Argitalpen hau azaroaren 25ean aurkeztuko da Alondegian eta Baleikeko bazkideek doan jasoko dute etxeetan Gabonetako opari bezala.

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET  
IRUDIAK: ANDER HORMAZURI

Frankismoaren amesgaizto amaigabe hartan, Gabonak garai alai eta itxaropentsuak izaten ziren orduko haurrentzat. “Gomezagoren kanta abestuaz joaten ginen etxex etxe eta laranjak eta diru pixka bat botatzen ziguten”, ondo gogoan du, adibidez, hau sinatzen duenaren amak. 1995eko urtarrileko *Baleike* aldizkariak garai hartan *Trabukok*, garai hartan haurra zena, Gabonen inguruan zituen gogorapenak jasotzen zituen: “Bazkalondoan herriko neska-mutil kozkor gehienok Goiko plazan biltzen ginen kanpandorreko ordu bietako bueltako kanpaiak hasi zain Gomezagorako. Ohitura hau zalantzarik gabe arrantzale herriarena zen eta oso antzinatek etorriko zen, ze, gure gurasoak (1900 inguruan jaioak) eta euren gurasoak ere Gomezagon ibiltzen omen ziren. Eta badirudi ohitura hau Zumaian bakarrik ospatzen zela. Gomezago arrantzale hau mendiko Olentzeroren antzekoa da”.

Abesti bat ere sortu zen Gomezagoren inguruan:

*Gomezago buru haundi  
Noiz harrapatuko dek arrain hori,  
Bart arratseko ordubietan  
Itsasoaren erdian.*

Oraindik badago ohitura Gabonetan taberna batzuetan abesti hori kantatzeko eta amaieran “itsasoaren erdiannnnnn” horrekin tabernariak intxaurrak eta abelinak botatzen dizkiete abesten dutenei.

Denborarekin orduko haurren gozoki, diru edo fruten bilketan lagun zuten pertsonaia hura taosa artean galdu zen. “Guk geure haurtzaroan ez genuen ezagutu. Gomezago beste belaunaldi batean existitu zen zerbait zen, galdu zena eta orain

eskoletan zerbait lantzen dena, gure haurrek ezagutzen dute-eta. Baina abestiaz gain, apenas dakite beste ezer Gomezagori buruz. Ipuina idaztea aukera ona iruditu zitzaidan, pertsonaia indartzeko imajinarioari elementu batzuk gehituz”, dio Josu Waliñok, *Gomezagoren gutuna* liburuko testuaren egileak.

Alainek, seme txikiak, bultzatuta hasi zuen Josuk proiektu hau. “Joan den urteko Gabonetan Gipuzkoa plazan nintzen, Donostian. Olentzero bat eta Mari Domingi bat zeuzkaten han eta Alain hasi zitzaidan galdezka ea non zegoen bestea. Ez nekien zertaz ari zen konturatu nintzen arte Gomezagori buruz ari zela. Hor ohartu nintzen Zumaiaiko pertsonaia bat dela, eskoletan lantzen dutela, baina imajinarioan besterik ez dagoela, gero ez dutelako garatzen errealtatean. Olentzeroren panpinak edo marrazkiak badaude, Mari Domingirenak ere bai, baina Gomezago eskoletako geletatik kanpo galdu egiten da. Bere tokia galdu duen Zumaiaiko pertsonaia bat da”.

Egoera horri buelta eman nahian, ipuin bat idazteko ideia bururatu zitzaion. “Iruditzen zait elementu batzuk sortu beharko lirartekeela Gomezagoren figura errebindikatzeko. Nire gaitasuna noraino heltzen da? Ipuin bat sortzera”. Behin proiektua buruan, Baleikeri proposatu zion liburua egin eta argitaratzea.

Ipuina idazteko zailtasunik handiena pertsonaia honen inguruan dagoen informazio eskasia da. “Gomezagori buruz ez dago informazio askorik. Oier Araolaza adituaren esanetan, Gomezago Olentzero da. Baina Zumaia kostako herria denez, itsasoarekin lotzen da beste herri batzuetan mendiarekin lotzen duten bezala. Guk hemen kanta bat dugu eta arrantzale itxura ematen diogu”. Gomezago behin eta berriz ageri da ipuinean, baina ez da protagonista nagusia. “Ez nuen haren







historia edo ipuin mitologiko bat kontatu nahi; horretarako, pertsonaia bat asmatu beharko nuen eta oinarririk ez nuen”. Ipuina beste era batera planteatu zuen Josuk: “Gaur egun-

go ume batek nola bizi dezakeen Gomezago kontatzen dut. Protagonistak haur bat, haren aitona eta beraien inguruan dabilzan pertsonaiak dira. Haur horrek Gabonetako gutuna Olentzerori bidali beharrean Gomezagori bidaltzea erabakitzen du. Olentzerori gutun bat bidaltzea erraza da, Zumaia etortzen delako gutunak jasotzera, baina Gomezagori nola bidaltzen zaizkio gutunak? Non utzi behar dira? Itsasora nola bidaltzen dira gutunak? Nola bidali horretan agertzen da zein zen Gomezago aitonaarentzat eta zein zen Zumaian. Elementu horiekin umeentzako Gomezagoren Gabonetako ipuin bat sortu dugu”.

Zumaiaiko pertsonaia eta Zumaian girotua izanda, zumaertasuna ere kontuan hartu dute egileek. “Zumaian girotuta dago eta herriko euskara erabiltzen da. Hitanoa zaindu da eta tokiko izenak ere erabiltzen dira, bereziki ahalegindu gara horretan”.

Behin ipuina idatzita, pertsonaia eta egoera gorpuzteko garaia heldu zen. “Garbi zegoen marrazkiak Ander Hormazurik egin behar zituela. Herriko artista izanda eta *Baleikeko* ilustratzailea, gainera, bera zen aukera logikoena”. Anderrek beregain espero baino ardura handiagoa zuela dio Josuk. “Ni hortaz ez nintzen ohartu, baina Roberto Gutierrezek [liburuaren diseinatzaileak] segituan esan zion Anderri kristoren ardura hartzen zuela, bera izango zelako Gomezagori itxura emango ziona, bere garaian ikastolek Olentzeru irudikatu zutenean bezala. Hemen-dik aurrera Zumaian Gomezago irudikatzen den momentuan oinarria Anderrek sortutakoa izango da”.

“Gomezagori nola bidaltzen dira gutuna? Nola bidali horretan agertzen da zein zen Gomezago aitonaarentzat eta zein zen Zumaian”



**Ander Hormazuri Alkiza**  
(Zumaia, 1966)

Artsaren harritat aurreratu ditu. Besteak beste, grabatuak, enkultura, pintura eta zismatika. Debako Arte Eskolan eta Aialko Talairrean irabiatu zen boter era. Ondoren arte-tailer batzuetan lan egindakoa da, eta gutxi 40 erakusketara baino gehiago eginek ditu, bakarka edo taldean. Ilustrazioaren arloan argitaletxe askorekin aritua da. *Baleike* aldizkariarentzat eta Zumaiaiko Udalarentzat ere lan ugari egin ditu. Gaur egun pintura irakatsia da Zumaiaiko kultur etxean. Beste egile zumaier batzuekin egindako argitalpen apagarrientzat hauek dira:

- Finlandiako ipuin muak, Joneta Ossa, 2002. Zumaia
- Gaur egun handia da, Inarri Azkue, 2002. Erein
- Epoko mirez zegoen honza, Josu Waiño, 2009. Aizkoni
- Hortza gaitu du Jonak, Josu Waiño, 2009. Aizkoni
- Flysch Algorri Mendata, Javier Carballo-Axier Hiarro, 2010. Eizkuzkoak Parletxe Sarra
- Zumaia eta otzgarra: taldean egin, 2012. Zumaiaiko Udala
- José Manuelen ablerak, Inarri Azkue, 2013. Baleike kultur elkartean



BALEIKE

Laguntzaileak



Pertsonaiak sortzeko ikertu egin behar izan zuen marrazkigileak. “Ander bueltaka ibili zen gai horrekin. Begira ibili zen garai hartan arrantzaleak nola janzen ziren. Adibidez, nik hasierako testuan jarrita neukan arrantzale txapela zera-mala eta Anderrek esan zidan arrantzaleek baserritar txapela janzen zutela. Testuan aldaketak egin behar izan nituen horregatik. Ez hori bakarrik. Ander arakutzen aritu da garai hartan zer nolako arropak janzen zituzten. Probak egin ditu arropa desberdinekin. Beste elementu batzuekin ere jolastu du: bizarra bai, bizarra ez, bibotea bai edo ez... Pentsatu genuen bizarra jarriko bagenio Olentzerorekin lotzen ariko ginela automatikoki. Sudurrarekin ere aritu gara; arrantzaleek sudur handia dutela zioen. Horiek guztiak kontuan izanda sortu du Gomezagor”.

## LIBURUAREN AURKEZPENA

**Azaroak 25, asteartea, 19:00etan,  
Alondegiko ikasgelan (4. solairuan).**

## IPUIN KONTAKETA

**Abenduak 2, asteartea, 17:30ean, haur  
liburutegian. 4-6 urte bitarteko haurrentzat.**

4 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzendutako liburua da hau. “Olentzerorengan eta Gabonetan sinetsi eta oraindik gutunak idatzi eta opariak eskatzeko garaian dabiltzan haurrei zuzendu diegu”. Adin tarte horretarako planteatzen diren beste ipuinak autoirakurketarako planteatuta daude; hau, baina, ez da halakoa. “Adin horretarako liburuek letra tamaina handia eta testu gutxi izaten dute. Haurrak pixka bat irakurtzen badaki, bere kasa irakurtzeko modukoak izaten dira. Honek, berriz, testu luzea du eta norbaitek haurrari kontatzeko dago planteatuta. Protagonista haur bat da eta horrek umeei gertutasuna sortzen die”.

Lana uste baino zailagoa izan dela onartu du Josuk. “Herritarra izateak sortzen du ardura eta, esan bezala, Gomezagoren irudia sortzen den lehen aldia da. Ez dut esango pertsonaia polemikoa denik, baina horren inguruan badago eztabaida ea Gomezagok egon behar duen edo Olentzerorekin nahikoa den. Guk erabaki dugu pertsonaia bultzatzea”.

Liburu hau helburu handiagoen lehen pausoa izan daitekeela uste du Josuk. “Ander, Roberto eta beste batzuekin hitz eginda, denak iritzi berekoak ziren: honek abiapuntua izan behar zuela. Gomezagoren inguruan elementu gehiago sortu behar dira: antzerkiak, marrazki lehiaketak... Liburu hau abiapuntua izan daiteke Zumaian figura errekuperatzen joateko”. ■



## ▲ LAU ESKUTARA

Josu Waliñok idatzi du ipuina eta Ander Hormazurik  
egin ditu marrazkiak.

## BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industrigunea, 9  
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa  
tel. 943 143 369

## EGOKI



Erloju  
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6  
tel. 943 861 787



## BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

**BERRITUA**

Eusebio Gurrutxaga plaza  
Tel. 943861700

Egin zaitez  
**BALEIKEKO**  
bazkide



Erribera kalea, 6 20750 Zumaiá tel. 943 143 097  
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak  
Telekomunikazioak  
Informatika  
Internet



DIGITAL+



V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045

## ERTZ INFORMATIKA



# Orange

Portatilak eta mugikorrek konpontzeko zerbitzua  
Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395



**ERROTA**  
OPIL-OKINDEGIA  
SANTIXO AUZOA, 32  
20750 ZUMAIA  
TEL: 943860000  
943860612  
FAX: 943860977  
errota@errota-okindegia.com

## FLYSCH UZKUDUN taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaiá (Gipuzkoa)  
Tel: 943 11 63 97

## Galdona



Mendiara mainela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346  
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

## Ganbara

TABERNA

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



Txomin Agirre kala Tel. 943862181

## GLENCOE

INGELES AKADEMIA

4 PERTSONAKO  
TALDE MURRIZTUAK

Zunbilo kalea, 12 beheá  
tel. 670 391 777

matrikulazioa dohainik!



## GOIKO TABERNA

Erribera, 9 tel. 943 861 391

Egin zaitez  
**BALEIKEKO**  
bazkide



Ikastegi homologatua

## Golden Gate

Institute  
hizkuntza eskola



Erribera kalea 1 bis, beheá  
tel./faxa 943 865 020  
goldengateinsti@telefonica.net

*Gomezagoren gutuna eta Arrano Beltzak beti garaile* liburuak ateratzeagatik bakarrik ez, PuntuEUS Fundazioko zuzendaria izateagatik ere bada hileko protagonista Josu Waliño. PuntuEUS domeinuaren kudeatzaile eta zaintzailea den erakundeko zuzendaria da irailaren hasieratik. Interneteko domeinu horren inguruko informazioa biltzen saiatu gara elkarrizketa honetan.

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

“PuntuEUSek euskal gizarte normalizaturen ispilu izan behar du”

2007. urtean hasi zen .eus domeinua lortzeko mugimendua eta urte horretan bertan, Juan Jose Ibarretxe (EAJ) lehendakari zela, PuntuEUS elkarte sortu zen. Handik urte batzuetara, 2012an, Ajuria Enean Patxi Lopez (PSE-EE) zegoela, elkarte fundazio bihurtu zen eta urtebete geroago, 2013an, Iñigo Urkullu (EAJ) Lehendakari-zako buru zela onartu zen .eus euskara eta euskal kulturaren domeinu bezala. Prozesuan zehar alderdi desberdinetako lehendakariak izateak erakusten du, Josu Waliñoren esanetan, gogo horren atzean, alderdi politikoen gainetik, gizarte oso bat zegoela.

**Hainbat urtetan Elhuyarren egin duzu lan eta orain fundazio honetara egin duzu salto. Nola egin duzu aldaketa?**

Jendeak ezagutzen nau idazlea eta Baleikeko kidea naizelako.. Jende askok uste du kazetaria edo letren mundukoa naizela, baina ni informatikan lizentziatua naiz. Nire jardun profesionala euskalgintzaren sektorean izan da: Elhuyarren 18 urte egin ditut. Jende askok pentsatzen du Elhuyar argitaletxe bat dela, eta ez da horrela; zientzia eta teknologiarako bideratutako erakunde garrantzitsua da. Urteetan hor egin dudana proiektuen kudeaketa, zuzendaritza eta berrikuntzarekin lotutakoa izan da beti. Hamar urtez proiektu eta berrikuntza zuzendari aritu naiz eta nazioarteko proiektuen arduraduna ere izan naiz. Hortik puntuEUS bezalako proiektu baten kudeaketa hartzea niretzat da nire ibilbide profesionalaren ebo-

luzio naturala eta karamelu bat. Batzen ditu formazioa eta nire ibilbide profesionala, gehi nire intereseko alorrak: euskara, berrikuntza eta teknologia berriak. .eus bezalako proiektu baten ardura hartzea, gaur egun, luxua da.

**PuntuEUS izena duen fundazioaren zuzendaria zara. Zein dira fundazio horren eginkizunak?**

Fundazioa da domeinua kudeatzen duen organismoa. Gaur egun .eus Interneteko lehen mailako domeinua da, puntucom, puntunet edo puntuorg diren bezala. Orain gutxi arte, 2007a arte, lehen mailako domeinuak 20 inguru ziren. Horiez gain, estatuari zegozkien beste 250 zuden: puntues, puntufit, puntude... Atzeko atetik sartuta, puntucat izan zen mundu mailan sortu zen lehen domeinu geografikoa. Sortu zen eztabaidaren ondoren, ICANNek (Izen eta Zenbakien Esleipenerako Interneteko Korporazioa ingelesez) erabaki zuen 2011n eskaintza zabaltzea eta orain milaka domeinu berri sortu dira. .eus euskararen komunitatearen domeinua da. .eus-ek ez du ordezkatzen herrialde bat; ordezkatzen duena da hizkuntza eta kultura bat.

**Hor nahasketa egon daiteke. Pentsa daiteke Euskal Herriko domeinua dela.**

Euskara eta euskal kulturaren domeinua da. Horrek ezagutgarri bat du eta da .eus domeinua duen webgune bat nahi baduzu, gune horrek euskaraz izan behar duela, edo euskaraz ez bada, euskara edo euskal kulturari buruzkoa izan beharko duela.

“PuntuEUS euskara eta euskal kulturaren domeinua da”



#### AURKEZPENA

Fundazioko kideak Iñaki Goirizelaia, EHUKo errektorearekin, Joxean Garcia, Zumartianeko lehendakariarekin eta Maite Iturbe, EITBko zuzendari nagusiarekin.

## ► WEB GUNEA

Interneteko atarian  
domeinuak erregistratzeko  
aukera zabalik dago.

### Hiru fasetan egingo duzue domeinuaren irteera. Zergatik?

Domeinua babesteko ICANNek markatzen duen protokoloa da ez etortzeko edozein domeinuak hartzera. Lehen fasea, Aitzindarien fasea, pixka bat figuratiboa izan zen. ICANNek 92 domeinu eman zizkigun eta baldintza batzuk betetzen dituzten erakunde batzuei banatu zitzaizkien: *Berria*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, enpresa batzuk... Gaur egun aktibo dauden bakarrak dira eta hala izango da abenduaren 3ra arte. Irailaren 16an bigarren fasea zabaldu zen, Abiarzaldia deitzen dioguna. Azaroaren 18ra arte edozein enpresak, erakundek edo norbanakok domeinu bat erregistratzea izango du, baina oraindik ez diegu domeinua aktibatuko. Azaroaren 18tik abenduaren 3ra domeinuak zeini emango dizkiogun erabakiko dugu.

### Eta zer gertatuko da une horretan?

Azaroaren 18tik abenduaren 3ra bitartean domeinuak aktibatzen hasiko gara ezarritako lehentasunen arabera. Sei lehentasun maila ditugu eta horien arabera joango gara aztertzen eta dagokionari domeinuak ematen. Ez dagokionari dirua itzuliko zaio. Gatazkarik bada, konponketarako bitartekari sistema abian jarriko dugu. Guk ez dugu bitartekari lanik egingo. Euskal Herrian bitartekari lanak egiten hasiko bagina, su emango ziguten! Ez, ez, abokatuak izango ditugu horretarako. Ideia da abenduaren 3an, Euskararen Egunean, erregistratutako domeinu guztiak aktibatzea. Egundik aurrera domeinu normala izango da, .com bat bezala. Edozeinek erregistratu ahal izango du bere domeinua eta libre badago berehala aktibatuko zaio. Hori bai, aurrez aipatutako baldintzak bere beharko ditu: gunearen zati bat bada ere euskaraz izatea edo euskal kulturari buruz aritzea.

### Domeinua erregistratzeko prezioekin izan dira kexa batzuk.

Entzuten ari gara euskararen domeinua oso garestia dela. Ez da garestia. Domeinu guztiak sorrerako prozesua dutenean prezio bereziak izaten dituzte. Oraingo prezioa, bitartekariak direla, gure lana dela, garestiagoa da. Gero prezioak jaitsiko dira, baina, hala ere, garestiagoa izango da .com bat baino. Baina zenbat eta gehiago izan, orduan eta gehiago jaitsiko dira prezioak, etengabe. Guk ez ditugu prezioak jartzen. Gu maioristak gara, guk erregistratzaileei domeinuak saltzen dizkiegu. Haiekin kontratuak sinatzen ditugu eta kontratu horietan li-

zentiak ematen dizkiegu domeinuak saltzeko. Haiek dira saltzen dituztenak eta guri domeinuko hainbeste ordaintzen dituzte. Beraiek jartzen dituzte gero nahi dituzten prezioak.

### Zein dira erregistratzaileak?

Register.com eta antzeko enpresak. Erregistratzaileekin, normalean, webguneak garatzen dituzten enpresak lan egiten dute. Euskal Herrian ez dago erregistratzaileerik, baina badaude *reseller* edo banatzaileak. Euskaltel, adibidez. Euskaltel ez da erregistratzailea, baina akordioa du erregistratzaile batekin eta domeinuak saltzen ditu. Baina horrek ez du zerikusirik oraingo prezioekin. Orain fase batean gaude, baina abenduaren 3tik aurrera beste batean sartzen gara eta horrek asko merketuko ditu prezioak. Orain 100 euro inguruan gaude, eta denei zabaltzen zaienean 50-60 eurora jaitsiko da, eta hortik aurrera, domeinu kopurua igotzen den heinean, prezioak jaitsi egingo dira. Baina arriskua dago zure izeneko domeinua galtzeko. Horregatik komeni zaio marka bat duen jendeari orain erregistratzea.

### .com edo .org bat merkeago bada, nola konbentzitu norbait .eus bat hartzera?

Arazoi desberdinak daude. Batetik, nortasun edo identitate kontuak daude, .eus-i dagokionez horiek dira arrazoi garrantzitsuenak. .eus-ekin zure identitatea nabarmentzen duzu, euskararen komunitateko parte zarela adierazten duzu eta zure webguneari nortasuna ematen diozu. Balio bikoitza ere badu: zure webgunea semantikoki ari zara adierazten zer-



**Cure-Txokoa**  
aberna



Upela plaza, 4  
20750 Zumaiá  
Tel.: 943 86 09 70

**Harvest**  
English School

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera

[www.academiaharvest.com](http://www.academiaharvest.com)

San Jose, 11 bisá tel. 943 143 334

**API**

**Ibaigain**  
inmobiliaria

Txomin Agiré 4, beheá  
elena@ricardoazcue.com  
tel. 615 793 406 / 943 862 651  
fax: 943 862 748

[www.ibaigain.com](http://www.ibaigain.com)

**ilarzi**



Alai auzategia, 2  
Tel. 943 24 50 20

**INPERNUPE**  
**ELKARTEA**



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

**Iriondo**  
Optika

Kantauri plaza, 8. Zumaiá. Tel. 943 86 04 86  
Nagusia, 53. Azkoitia. Tel. 943 85 19 84

**IRUITZ**



Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAIÁ (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 860 760

**TXALAPARTA**  
OPAKIAK

Angelin Soratu, 2  
20750 ZUMAIÁ  
(Gipuzkoa)  
tel. 943 143 689  
fax: 943 430 637

**Itzurun, S.L.**  
Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armarin enpokatutak...

Itzurun Zuhaitzibidea, 2 beheá  
Tel. / Fax: 943 86 15 65

**ORRAZTEGI**  
ZUMAIÁ



943 862 083

**JUARISTI**  
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran  
Eguneko menua  
Jangela klimatizatua


Basadi auzategia, 10 tel. 943 05 05 77

Egin zaitetz  
**BALEIKEKO**  
bazkide



**KABI** Pakete Etxezarrabi, 16  
943 117 427

TABERNA



**Kaithermik S.L.**



**Arotzeria metalikoa**  
Aluminiozko leihoak ZH-rekin,  
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

Upela plaza, 8  
tel. 943 862 517



**kalari**

**PAPER** diseinu grafikoa

Roberto Gutierrez  
696 211 111 • [rgutierrez@rgutierrez.org](mailto:rgutierrez@rgutierrez.org) • [www.rgutierrez.org](http://www.rgutierrez.org)

**Kresala**  
Taberna



Julio beobide 3, tel. 943 019 869



taz den. Baleike.comek ez du ezer adierazten, baina baleike.us izateak esanahi bat du. Kokatu egiten zaitu, .music batek edo .es batek egiten duen bezala. Denda eta halakoentzat ere badu balio komertzial bat, kontrakoa pentsatu daitekeen arren, eta hori da guk indartu nahi dugun mezua. .cat da Estatuan gehien saltzen den hirugarren domeinua, .com eta .es-en ondoren. .cat domeinua duten % 60 enpresak dira. .cat edo .us batekin ez duzu bakarrik identitatea adierazten; zure merkaturari esaten diozu zein den zure harremanetarako hizkuntza. Azken finean, zure bezeroak gertutasuna nahi du. Nazioartera begira, erakusten dut ez naizela enpresa poloniarra: enpresa euskaldun bat naiz, horrek dituen konnotazio positibo guztiekin. Horrek badu balio bat. .eus-en aurkezpena egin genuenean, adibide ezberdinak jarri nahi izan genituen. Arabar Errioxako bodega bateko zuzendaria eraman genuen eta hark zioen beretzat .eus-a bereziki garrantzitsua zela. Egune-ro azaldu behar zuen bera nongoa den. Eta .eus-ek hori markatzen zuen: bere ardoa ez zela Errioxakoa, Arabar Errioxakoa baizik. Merkatarien ordezkari bezala Joxean Garcia egon zen, Zumartian plataformako lehendakaria. Harekin hizketan, esan zuen euskaraz hitz egiten duela azoka txikietara joaten delako eta azkenean bere bezeroak euskaldunak direlako. Interneten .eus-ek hori lortzen du. Interneten dago gaur egun merkaturik handiena eta Interneten ari zara esaten zure negozioaren hizkuntza euskara dela.

### **Lan egiterakoan, zein izan da zuen eredia?**

Horrelako domeinu bakarra .cat da. 2007an hura sortu eta berehala, .eus-a lortzeko mugimendua hasi zen. Guretzat erreferentzia .cat da; zazpi urte daramatzate aktibatuta. Irailaren 1ean hasi nintzen lanean eta 3an bilera bat nuen beraiek Bartzelonan elkar ezagutzeko, hitz egiteko eta beraien esperientzia ikusteko.

### **Bigarren fasea amaitzean da. Orain arte zer erantzun izan duzue?**

Jende guztia zain zegoen eta orain eromen puntua dago; jendea galdetza dabil. Denek uste dute .eus zerbaitek desberdina dela eta esaten diegu beste edozein domeinu bezalakoa dela. Jendeak zalantza asko ditu eta adi-adi dago.

### **Eta noraino uste duzue hel daitekeela?**

Honen helburua da Euskal Herriaren adierazle birtuala izatea. Euskal gizartea eta euskararen komunitate osoa islatu

behar du honek. Lortu behar duguna da etxe ondoko edozein dendarik, ile apaindegik edo tabernak duen webgunea .eus izatea. Islatzen duelako nongoa den eta bere burua ondo ordezkatzeko duelako. Guretzat normaltasuna horrek erakutsi behar du eta euskal gizartean dagoen egitura guztia sarean adierazi behar du. Horraino iritsi behar gara eta hori lortzea da gure lana.

### **Euskal gizartearen normalizazioa lortzeko baliagarria izan daiteke, agian.**

Bai, noski. .eus-ek badu abantaila bat eta da ez diozula inori entzungo honi buruz gaizki hitz egiten. Oraingoz.

Politikariak ere isilik daude, zorionez. Hori bada gure helburua: .eus izatea euskal gizarte normalizatuaren ispilua. Zenbakitan noraino hel gaitzekin? Hori ezin da jakin. Zenbat webgune dauka Euskal Herria? Gure helburua da orain gauden fasean, azaroaren 18ra bitartean, 2.000 domeinu erregistratzea, eta urtebeteko epean 5.000. Ideia bat egiteko, .cat-ek, gaur egun, 75.000 domeinu ditu. Katalunia handiagoa da, beste egoera batean daude eta zazpi urte daramatzate. Haiek abiatu eta hilabete gutxira 30.000 domeinu egin zituzten.

### **Zer dago .eus-aren atzetik?**

Hasteko, gizarte oso baten babes. Gizarteak behar bat bezala ikusten du. .eus elkarteak sortu zenean bere garaian 50etik gora erakundeak osatu zuten. Denak euskara eta teknologia-aren alorrekoak: unibertsitateak, EITB, Kontseilua, Elhuyar bera... Baina baita informatikako injineruen elkargoa, telekomunikaziokoak... Euskal Herri osoa ordezkatzeko duten erakundeak daude.

Ez daudenak dira gobernuak. Ondoren Fundazioa sortu zuten eta hori patronatu bat dago. Gaur egun patronatuan daude EITB, unibertsitateak –adibidez, EHUko errektorea, Iñaki Goirizelaia, oso inplikaturatuta dago proiektuan– eta euskalgintzako erakunde txikiak. Babes instituzionala ere badu eta horrek proiektuaren arrakasta bermatzen du. Gobernuak eta instituzioak ez daude sartuta patronatuan hala erabaki zelako, baina horien babes ere esplizitua da. Ofizialki onartu zenean, .eus-en aurkezpena Urkullu lehendakariak egin zuen. Jaurlaritzak esan du euskadi.net euskadi.eus izango dela hementik aurrera. Diputazio guztiak ere aldaketak prestatzen dabilta. Abenduaren 3an ikusiko dugu Euskal Herriko webgune ofizial gehienak .eus izango direla. Babes hori esanguratsua da, alderdi politikoetatik harantzago. ■



“Dendentzat badu balio komertzial bat eta hori da guk indartu nahi dugun mezua”



**kuttun**  
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



**malaur**

Egin zaitez  
**BALEIKE**ko  
bazkide




**Maluta**  
jatetxea • taberna

oilasko erreka • kaxuelitik • ogitarrekoak  
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak  
hanburesak  
bokatak...

**marina**

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



**MENDI - ONDO C.B.**  
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



**Nikol**  
taberna

Amiako plaza 243561516



**NOIA S.L.**  
TAILERRAK ETA  
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan)  
20750 - Zumaia  
Tel.: 943 861 363  
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C  
20820 - Itziar-Deba  
Tel.: 943 606 291  
noia@carroceriasnoia.com

836 887 812 (Zumaia)  
809 834 438 (Itziar-Deba)  
www.carroceriasnoia.com

**MARGARI** fruta-denda

Tel. : 943 86 19 20  
Harategi Kalea 17 - ZUMAIA

**"Muagi"**

errehabilitazioa  
kirol medikuntza  
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3. blokea tel. 943 861 891



**OSA**  
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa  
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149

ETXEREN  
**OLIDEN**  
construcciones y reformas, S.L.

647 040 156  
686 911 257  
oliden@olidenreformas.com

**Oliden arkitek-tura**  
678 975 652  
943 143 093  
www.olidenreformas.com

ZARAUZ - ZUMAIA  
www.olidenreformas.com

Fabrikak  
Telakak  
Etxerentzako  
(Sukaldeen, bainugaien)  
Industriko martxerentzako  
Mota guztietako gelberentzako lanak

Etxerentzako inspektzio teknikoa (ITE)  
Zurifikatu energetikoa  
Funtzioak diseinatu eta aldatzea  
Etxerentzako berrakondak  
Mota guztietako proiektuak



**OSKARBI**  
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranaitz, 1 Tel. 943 143 112  
oskarbi@kirolak.com



**OSTOLAZA**  
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Korta Industrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)  
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45  
www.ostolaza.com • e-mail: ostola@ostolaza.com

**Ostolaza**  
Altzariak

Julio Beobide Ibiltoa, 1  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
mueblesostolaza@euskaltel.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25

**OTEZURI**  
KAFETEGIA

Gosariak  
Ogia  
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401

**La Primavera**  
pizzeria

943 247 011



www.laprimaverapizzeria.com



Txartel berriarekin **hamaika abantaila** dituzue Zumaiako denda, taberna, jatetxe eta negoziotan. Hemen zerrenda:

**Arruti arropa denda** **BERRIA**

%5eko deskontuak azaroan erosketa guztietan. Ez da bateragarri izango beste deskontuekin.

**Maiaur** **BERRIA**

azaroan eskeintza bereziak etxeko izozkietan.

**Xumai kirolak** **BERRIA**

%5eko deskontua produktu guztietan.

**Yoana ileapaindegia** **BERRIA**

Depilazioak %10 merkeago. Hilean behin, bazkideen artean zozketa ilea garbitu eta orraztu debalde egiteko.

**Endañeta elektrogailuak** **BERRIA**

%5eko deskontua kontrazaleko iragarkian ageri diren produktuetan.

**Ertz informatika**

Ordenagailu eramangarria eta jokoak erostean %5eko deskontua. Ordenagailu eramangarrien konponketan %5eko deskontua.

**Tximista taberna**

Astearte eta asteazkenetan, inportazioko bi garagardo ordaindu eta hirugarrena doan.

**Juanjo harategia**

10 eurotik gorako lehen erosketarekin, ardo botila opari. Bazkide txartelaz gain, aldzkarian argitaratuko den kupoia erakutsi beharko da.

**Basusta Erretegia**

Astelehenetik ostiralera, kartako bazkariak %10 merkeago.

**Flysch-Uzkudun taberna**

Eguneko menuarekin, kafea debalde.

**Iratxe Plazaola**

Sei hilabetez, asteazkenetan errebisioa eta aho eskubila doan. Bazkideak eta beraien bikote eta seme-alabek balia dezakete eskaintza, bakoitzak behin.

**Marina kafetegia**

Bost pizza erositako, seigarrena doan. Txartel bana jasoko da erositako ale bakoitzeko, eta bost osatutakoan, pizza baten truke aldatzeko aukera izango da.

**Zalla taberna**

Udazkenean, kafea euro batean.

**Egoki erlojudenda**

%10eko deskontua erlojuetan, eta urre edo zilarrezko bitxietan. Deskontu hau ezin zaie beste eskaintza batzuri gehitu.

**Nikol taberna**

Ostegunetan lehen garagardoa euro batean.

**Ana zapiak**

%5eko deskontua produktu guztietan.

**Basusta loredenda**

Azaroaren 3tik martxoaren 12ra, %10eko deskontua 25 eurotik gorako erosketa eginez gero, hileta eta ezkontza zerbitzuak ezik.

**Kabi taberna**

Garagardo kaña 1,5 euroan.

**Juaristi jatetxea**

Afariarekin kafea doan; kafea hartzen ez duenak txupitosa aukeran.

**Trapaia taberna**

Igandetako bazkariarekin kafea opari.

**Ttakun taberna**

Ostegunetan kafea euro batean.

**Zatozte bakailudenda**

Astelehenetan %5eko deskontua txarkuteriko produktuetan.

**Ganbara taberna**

Garagardo kaña 1,5 euroan bazkideei.

**Inpernupe taberna**

Kafea euro batean bazkideei.

**Otezuri taberna**

Etxeko tartak %10eko deskontuarekin.

**Optika Zumai**

%10eko deskontua betaurreko eta eguzkitako betaurrekoetan.

**Ukendu parafarmazia**

Baleike txartelarekin %5eko deskontua erosketa guztietan. Ez da bateragarria izango beste deskontu txartelekin.

**Margari frutadenda**

Baleike txartelarekin %10eko deskontua urte osoan.

**Ekin elektrizitatea**

LED lanpara eta papertegiko materialetan %10eko deskontua.

**Iriondo optika**

Haurrengan ikasketa arazoak eta "begi alferra" ekiditeko ikusmenaren azterketa pertsonalizatua doan.

**D'Ana ileapaindegia**

Ilea garbitzeko produktu ekologikoak eta alergiaren kontrakoak (kolorante eta osagai toxikorik gabeak) %15eko deskontuarekin.

**Upela belardenda**

15 eurotik gorako erosketa eginez gero, 150 gramo zereal opari (kinoa izan ezik). 30 eurotik gorako erosketetan, ezpainetarako

margoa opari (aleak agortu arte).

**Yoana ileapaindegia**

Depilazioak %10 merkeago. Hilean behin, bazkideen artean zozketa ilea garbitu eta orraztu debalde egiteko.

**Golden Gate Institute**

Matrikulazioan %20eko deskontua bazkideentzat.

**Ilargi taberna**

Kafeak euro batean.

**La Primavera Pizzeria**

Bazkideentzat etxera eramatea doan.

**Beheko Plaza jatetxea**

Igandetan pintxoia doan.

**A3**

Artikulu guztietan %5eko deskontua.

**Talaie jatetxea**

Bi lagunentzako hiru mariskada bazkideen artean zozkatzeko.

**Talaia jatetxea**

Ostiraletan afariarekin kafea eta txupitosa doan.

**Artaza kanpin ekologikoa (Urbasa-Lizarra)**

Baleike txartelarekin %10 merkeago.

**Iruitz ileapaindegia**

Asteartetik ostiralera, ilea keratinarekin hidratatzeko tratamendua %25 merkeago. Txanda aurrez hartu behar da.

**Ardantzabide altzariak**

Ispiluak %10 merkeago.

**Aizpurua liburudenda**

Haur eta helduentzako irakurketarako liburuak %5 merkeago.

**Oskarbi kirolenda**

Arropan %5eko deskontua.

**Txalaparta**

Bazkide txartelarekin produktu guztiak %5 merkeago, merkealdian izan ezik.

**Kuttun**

2014ko abenduaren 31 arte, %5eko deskontua produktu guztietan. Ezingo zaio bestelako deskonturik gehitu.

**Kalari taberna**

Igandean afariak %10 merkeago.

# IRAKURLETALDEA: IRAKURTZEAREN PLAZERRAREKIN GOZATZEN DUTENEN GUNEA

TESTUA: IZASKUN URBIETA  
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA



2011ko abenduan jaio zen “Irakurri matte” irakurle taldea Uxue Alberdiren gidaritzapean. Orduetik, dozenaka liburu irakurri dituzte, eta hainbat idazleren bisita ere izan dute. Irakurketa bakarkako lana izatetik taldean konpartitzeko jauzia egitea da helburu nagusia.



Irakurtzea maite dutenek hileroko zita izaten dute Alondegian. Hirugarren ikasturtea hasi berri dute, eta sasoi betearen daudela igartzen zaie. Irailean egin zuten lehen saioa, eta berezia izan zen askorentzat: Bernardo Atxagaren bisita izan zuten, bere azken obra, *Nevadako Egunak*, aurkeztera etorri baitzen asteasuarra.

Egun hartan 40 bat lagun elkartu ziren. Jende ugari, Getariatik eta Lasarte-Oriatik etorritakoak asko. Izan ere, Uxue Alberdik gidatzen ditu herri horietako bi taldeak ere. “2011ko udan Getariako Udalarri herrian irakurle talde bat martxan jartzea proposatu nion. Proposamena onartu eta hala hasi zen Getariakoa. Handik gutxira, Zumaiaiko Udaletik iritsi zitzaizdan proposamena, ea Zumaian ere beste talde bat gidatuko nuen. Pozik eman nien baiezkoa”, kontatu du Uxuek.

Zumaiaiko taldea nahiko egonkorra dela adierazi du ida-

zleak. “10-12 lagun biltzen gara. Nik uste positiboa dela urtero pare bat lagun berri taldera gehitzea, ikuspuntuak gehitzeko, taldeari haize freskoa emateko”. Taldekideez galdetutakoan, denetarik dagoela kontatu du, “Taldeak oso anitzak dira: sexu, adin, lanbide, bizimodu... diferentea dugun pertsonak elkartzen gara; hala ere, 30 urtetik beherako gazteak erakurtzea kostatzen da, agian, gehien”.

Karmelo Fernandez de Arroiabe eta Antton Peñalba dira, esaterako, taldeko partaideetako bi, eta sorreratik daude. “Guretzat plazerra da irakurtzea eta irakurritakoaren inguruan eztabaidatzea”, kontatu dute. Gainera, pozgarria iruditzen zaie horrelako talde batek irautea, “Azkenean, badakigu irakurle kopurua urria dela. Eta Zumaian horrelako talde bat izatea eta irautea pozgarria da”.

## “Ez gara intelektual koadrila bat”

Antton Peñalba eta Karmelo Fernandez de Arroiabe irakurle taldeko kideak dira. Gogokoak dituzten liburuak aukeratzeko eskatu diegu.

### Gazte jende gutxi joaten da irakurle taldera.

**Antton:** Uste dut beste irakurle taldeetako ezaugarria ere badela. Donostian lagunak ditut eta haiek ere berdina komentatzen didate, jubilatuko koadrila elkartzen dela.

**Karmelo:** Atxaga etorri zenean, beste irakurle taldeetako jendea etorri zen, eta kopurua handitzeaz gain (12tik 40ra pasa ginen), eta Uxueri komentatu nion adina ere handitu egin zela. Pentsatzen jarria naiz ez ote den euskal literatura heldu-zaharren kontua.

**Antton:** Gaur egun, tamalez, euskal kultura kontsumitzen dutenak ez dira gazteak. Gehiago gara gure adinekoak 25 urtekoak baino. Gazteek, beharbada, musika kontsumitzen dute, gehienbat. Nik uste jende askok irakurtzen duela gaztelaniaz, *best seller* horietakoak.

### Nola animatuko zenukete jendea etortzera?

**Karmelo:** Denetarik gaudela. Ez gara intelektual koadrila bat. Etxekoandreak daude, irakasleak, jubilatutakoak... Eta euskaraz irakurtzea ez dela hain konplikatu.

**Antton:** Interesgarria da esatea, baita ere, ez duela zertan hileroko konpromisoa izan. Liburu zehatz bat gustatzen zaizula eta irakurri duzula, ba, hilabete horretan etorri besterik ez duzu. Oso talde malgua eta irekia gara. Bakoitzak daukanetik ekartzen du eta ekarpen horrek aberasten du.

### Zuei zer aportatzen dizue taldeak?

**Antton:** Gutako asko ezagutzen gara lehenagotik, baina talde honek zerbait polita badu da batzuetan zerbait hartzera joaten garela, edo afaritxoren bat egiten dugula. Beste lagunarte bat, beste giro bat sortzen dugu.



### Zein liburu gomendatuko zenukete?

**Karmelo:** Beharbada, hasteko egokiena ez den arren, Saizarbitoriaren *Martutene* esango nuke.

**Antton:** Alice Munroeren *Zorion handiegia* eta Harkaitz Canoren *Twist*, esaterako, asko gustatu zitzaizkidan. Sofi Oksanen *Garbiketa* ere bai.



>>> Ikusten duzu aldeak?  
Zure esku ere badago

**ZURE SALTOKIA ETA ZU**

PERTSONA HELBURU



### Irakurketa partekatzearen onura

Irakurle taldeak helburu bat baino gehiago dauzka, kolektiboak eta pertsonalak. “Helburu argiena irakurtzea bera da, eta irakurritakoa taldean elkarbanatzea eta aberastea, plazer horrekin gozatzeko dugunok konpartitzeko gune bat izatea”, esan du Uxuek.

Irakurzaletasuna sustatzeko, hobeto irakurtzen ikasteko, hainbat gairen inguruko ikuspuntu diferenteak partekatzeko, idazleen lana ezagutzeko... Hainbat gauzatarako balio du taldeak. “Irakurleok badugu liburuetatik jasotzen dugun beste mundu bat, eta askotan ez dugu izaten norekin konpartitu. Irakurketaren kontzeptu kolektiboak zabaltzeko egiten du irakurketa indibiduala, eta konpartitzean, esperientzia terrenalagoa bilakatzen da”, jarraitu du. Alegia, errealitatea galbahe batetik pasa edo hamar galbahetatik pasatzea diferentea da. “Norbere irakurketa indibiduala eginda dator taldera, bizitako emozioekin, pentsatutakoekin, ulertutakoekin eta ulertu gabekoekin... eta elkarrekin partekatzeak zabaltzeko egiten du norberaren irakurketa. Liburuak hobeto ulertzen dira. Bakoitzari gauza batek ematen dio arreta. Konturatzen zara bati gustatzen zaiona, edo sinesgarri gertatu zaiona, edo hunkitu duena... bestearentzat dela disgustuko, sinesgaitz. Eta irakurketa batek ez duela besteak baino gehiago balio eta besteen begiek irakurtzen dutena entzuteko umiltasuna izanez gero, hori ere landu egin behar delako, beti jasotzen da zerbait”.

Karmelo eta Antton ere iritzi berekoak dira. Karmelok kontatu duenez, irakurtzea betidanik gustatu zaio, baina taldean liburu bati buruz ideiak partekatu ahal izatearen falta sumatzen zuen. “Irakurtzea soilik motz geratzen zitzaidan”, esan du. Bere ustez, irakurketa asko aberasten du taldeak.

“Urtero pare bat lagun berri taldera gehitzea, ikuspuntuak gehitzeko eta taldeari haize freskoa emateko garrantzitsua da”

“Baina ez dezatela pentsatu etortzen ez direnek izugarriko kritika literarioak egiten ditugula. Bakoitzak bere iritzia ematen du, irakurri duenaren gaineko irudikapena, eta sentiarazi diona”. Antton ere Karmelorekin bat dator. “Askotan irakurketa bakarlana da. Eta ondoren lan hori konpartitzea oso aberasgarria da. Baina exigentzia askorik gabe. Gure iritzia esatea da batez ere taldean egiten duguna: zer gustatu zaigun, zer gauza interesgarri dauden liburuan... eta beti daude sorpresak! Zuri oharkabean pasa zaizkizun kontuak, detaileak... beste bat ohartzeko da, eta hor dago, hain zuzen, taldearen esentzia”, kontatu du.

Irakurleen ohiko ezaugarria da, gainera, bakoitzak bere errealitatearekin eta bizitzarekin konparatzen duela irakurritakoa. Uxueren hitzetan, “Askotan gertatzen da, baina non amaitzen da literatura eta non hasten bizitza? Bakarka irakurtzen ari garenean ere etengabe ari gara liburutik gure barrurako eta gure barrutik liburrako jauziak egiten; horregatik funtzionatzen du literaturak”. Anttonen iritzi ere normala da interpretazio hori. “Denok liburu berdina irakurtzen dugu, baina bakoitzak bizi izan dituen esperientziak eta bizi-penetan oinarrituz, interpretazio ezberdinak ateratzen ditu. Hori dauka ona liburu batek”.

### Liburuak aukeratzeko irizpidea

Baina nola aukeratzeko dute zer liburu irakurri? Zein irizpide hartzen dute kontuan? “Nik zerrenda bat proposatzen dut, eta taldekoei ere liburuak proposatzeko eskatzen diet. Zerrenda osatzeko hainbat irizpide hartzen ditut kontuan: kalitatea, interesgarritasuna, askotariko gaiak izatea, generoen barietatea... Gero bozketa egiten dugu”, kontatu du. Urtean 10 liburu irakurtzen dituzte, eta idazleak, generoak eta gaiak bariatzen saiatzen dira. Urtero poesia liburu bat irakurtzen dute gutxienez, saiakera bat, ipuin liburuak, itzulpenak, nobelak... “Idazleen kasuan ere esaten didate nor etortzea nahi luketen, eta beti diferenteak etortzen dira, ahalik eta idazle gehien esperientzia jaso ahal izateko”.

Irakurle bakoitzak ditu bere gustuak, baina, oro har, beraien bizitzari buruz hitz egitea nahi izaten dute. “Paperean ispilua topatzen dutela hein handi batean. Sinesgarritasunaren gaiak beti ematen du soka luzea”. Gainerakoan, denetarik irakurri eta hitz egin dute: literatura femininoaz, bikote harremanez, amatasunaz, krisiaz, euskal gatazkaz, militantziaz, konpromisoaz, heriotzaz, edertasunaz, botereaz, garai zaharrez eta berriez... “Gauza batek asko harritu nau, ez nuen uste jendeak irakurketa hain serio hartzen zuenik: konturatu naiz liburuak espero zutena ematen ez badie, haserretu egiten direla asko. Irakurleek asko jartzen dutela beren aldetik, konfiantza bat autorearengan, fede bat fikzioan... eta frustratuta sentituz gero, haserretu egiten dira”.



## “Ez naiz taldeetara gidoi batekin prestatuta joaten”

Azaroaren 11n etorriko da Zumaia irakurle taldera *Gerra txikia*, bere bigarren eleberria, aurkezteko asmoz Oreretako idazlea. Esperientzia nahikoa du irakurle taldeetan, eta, hain zuzen, bere ikuspuntua ezagutzeko aukera eman du.

### **Irakurle taldeak sortzeak onura ekarri dio literaturari? Eta zuei, idazleoi?**

Dudarik gabe. Irakurle taldeak gauza askotarako balio du. Alde batetik, balio du irakurleak bere lana sozializatzeko, beraien lana zabaltzeko. Eta, bestetik, irakurle taldea gertatzen den momentuan, irakurleak (eta idazleak ere bai, jakina) bere lanaren inpaktuaren neurria eduki dezan. Idazlearentzat oso baliagarria da jakiteko non asmatu duen eta non egin duen huts, non kamustu behar duen, non indartu, non landu gehiago. Hurrengo liburu bat idazteko ere oso aberatsa da, pistak ematen dizkizu.

### **Zertarako balio du irakurle taldeak?**

Irakurketa potentziatzeko balio du. Azkenean, zuk izan dezakezu liburuak irakurtzeko zaletasuna txiki edo handiagoa, baina taldean egiteak beste estimulu bat sortzen du. Dudarik gabe, literatur taldean ez dagoen jendeak urtean zehar liburu gutxiago irakurriko ditu ziur aski, edo gutxiago euskaraz... Taldeak oso euskal literaturara begira daude. Eta bai, horrek behartzen du herri askotan jendea euskal literatura kontsumitzera. Zorionez, euskal literaturan badaude liburu batzuk oso onak direnak. Horrek gero ahoz ahokoa sortzen du eta zabal-kundea eragin. Euskal literaturan gabiltzanon eragin media-tikoa ez da handia, baina hor dago.

### **Zein izan da zure esperientzia irakurle taldeetan?**

Irakurle taldeetara askotan joana naiz, herri askotan dau-de talde hauek. Denetarik dago: oso alaiak direnak eta afari-merienda eta guzti eramaten dutenak, oso serioak direnak eta intelektualak.

### **Zein da idazlearen lana edo helburua irakurle talde ba-tera joandakoan?**

Guri deitzen digute gure liburu irakurri dutelako eta gure-kin komentatu nahi dutelako. Ni ez naiz taldeetara gidoi ba-tekin prestatuta joaten. Bestela, guztietan gauza bera kontatuko nuke eta hori ez da nire nahia. Liburuaren historia zein izan den transmititzen saiatzen naiz ahalik eta erarik zintzoenean, besterik gabe: nola sortu zen istorioa, zeintzuk izan diren li-buru idazteko kontuan hartu ditudan gauzak, aintzat hartu ditudan gauzak, zein izan diren nire erreferenteak... inpro-bisatzea ere gustatzen zait, gauzak ez errepikatzea.

### **Irakurle taldeetara joatea eta zure liburuaren inguruan hitz egiteak asetzen zaitu edo marketin hutsa da?**

Hemen ez dago marketinik. Eta egitekotan, lehenago egin-da dago, ni joaten naizenerako liburu irakurritako dagoelako. Kasu honetan marketina egiten didana Uxue bera da, baina ez dut uste horregatik egiten duenik. Irizpide literario bati jarrai-

tuko dio, eta pentsatzen dut bere helburua izango dela taldekideek ahalik eta urterik goxoen pasatzea. Ahalik eta gehien gozatu dezatela nahiko du, taldeak be-rak dituen ezaugarrietara molda-tuta, jakina.

### **Betetzen zaitu, orduan?**

Segun. Azkenean, experien-tzia humano bat da, eta horretan eragina du zeuk zer gogo duzun, non den, zer talde den... Niri asko gustatzen zait jendearen iritzia entzutea eta iruditzen zait, gainera, iritzi guztiek dute-la arrazoiaren parte bat. Azkenean, pertsona batek liburuko pasarte bat kontatzen dizu zer eragin izan duen bere baitan eta hori pista bat da jakiteko non asmatu duzun, zer dagoen ondo... eta ni oso idazle profesionala naiz zentzu horretan: oso pertsona lehiakorra, exijentea, detallista, fina.

### **Eta jendeak zer galdetzen dizu?**

Denetarik. Jendeak bere bizitzarekin lotzen du liburuan gertatzen dena. Oso naturala da hori, eta oso seinale ona, era berean. Fikzioa, bai literaturan, bai beste alorretan, beti ez da beste baten istorioa irakurtzeko edo ikusteko modua, baizik eta gure baitan dagoen misterio moduko bat argitzeko tresna. Gure baitan galdera asko eta handiak egoten dira, eta orduan fikzioak horiek betetzen ditu askotan. Ez ditu argitzen, baina eramangarriagoa egiten du.

### **Zure liburuak, gainera, errealitatea aurkezten du. Zuk zeuk bizitakoa.**

Bai, liburuak zuretik benetan asko baldin badauka, elka-rrizketa askoz ere interesgarriagoa da. Beste pertsona batek kontatzen badu berak ere antzeko zerbait pasa duela, zuri ere berriro eragiten dizu. Horrela, oso dialogo estimulantea eta sendagarria bihurtzen da, biontzat kasu honetan. Liburu hau idaztea oso terapeutikoa izan zen. Ziur nago liburu hau irakurtzen jendeak negar eta barre egin duela, nik neuk ere egin nuen eta. Idazleak bere begietatik idazten du, hori saihestezina da. Enpatia oso ariketa zaila da. Norbaitek kontatzen digunean berari gertatu zaion gauza bat, edo gure baitan aurkitzen dugu konparatzeko esperientziaren bat, edo ez dugu sentitzen.

### **Zein liburu gomendatuko zenuke zuk irakurle talde batean?**

Nire euskarazko idazle kuttunenak Eider Rodriguez, Sa-rrionandia eta Saizarbitoria dira. Nire belaunaldikoen artean, Harkaitz Cano eta Hedoi Etxarte esango nituzke. Jon Benito poeta ere asko gustatzen zait. Eta, beno, azkenaldian atera diren liburuaren artean, Danele Sarriugarteren *Erraiak* esango nuke. Talentua eta ausardia duen pertsona da. Ondorioa: gizon zahar-rak eta emakume gazteak gustatzen zaizkit.



**Rosi** Garbiketak

Etxeak eta dendak  
Enpresa eta auzo lanak  
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353

**talaja**  
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

**TALAI-PE**  
jatetxea-erretegia



Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan  
Julia Bechide ibiltokia Tel. 943961902

**Tapaia**  
Taberna



Enbera kalea  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
tel. 943 861 973

**TTAKUN TABERNA**



Izustarri, 3  
tel. 943 865 289

**TXIMISTA**  
garagardotegia

Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Txerri-ukondoak (Hodilloa)  
Salxitrak, oilaskoak...  
Garagardoak-dukera

Ondartza plaza, 4 beheko Tel. 943 573 905

**UKENDU**  
PARABOTIKA  
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro  
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

**UPELA** PARABOTIKA  
BELARDENDA

- ✓ Sendagai naturalak.
- ✓ Osteopatia eta masajeak.
- ✓ Naturalista, dietetika eta olikadura.

Upela plaza, 9  
943 537 911  
upelabelardenda@hotmail.com



**yoana**  
ileapaindegia

Amaia plaza,  
2 behe  
943 143 278



**XUMAI KIROLAK**  
running eta trail



tel. 943 506 471 Basadi auzategia, 2B, beheko xumai\_10@hotmail.com

**Zalla**



- plater konbinatuak
- ogitartekoak
- oilasko erreak

Upela Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

**ZATOZTE**

zatozte.bakailaudenda@gmail.com  
Juan Beltrun 4 beheko 20750 Zumaia  
TF 943861383

**ZUMAIA AUTOESKOLA**  
E-mail: zumaiaautoeskola@euskalnet.net



BASADI 13  
20750 ZUMAIA  
Tel. 943861018 / Fax. 943018173

**Zumaia Hotela**  
Jatetxea  
Kafetegia



Alai auzategia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

**EuroTaller**  
ZUMAIA MOTOR S.L.

José Rey Alfaro  
Gerente

Santxo Auzoa, 22  
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)  
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161  
e-mail: zumaiaomotor@telefonica.net

**EDU**  
ZUMAIKO  
OPTIKA

**ESKERRIK ASKO**  
—  
25 URTE ZUEKIN

**%25**  
DESKONTUAK

25 urtez gure ondoan zaudelako.

Txomin Agirre 6, 20750  
T 943 143 057  
www.eduoptika.com

Karmelok hala ere zerbaiten falta sumatzen du. “Irakurterakoan eskema baten falta sumatzen dut. Análisi simple bat egiteko oinarritzko tresnak, pautak. Kritika literario bat egitera iritsi gabe, baina jarraibide batzuk zer gauza ikusi behar diren jakiteko: gaia, haria, pertsonaiak, idazkera...”.

### Idazleen bisita

Irakurle askorentzat, idazleen bisita izan ohi da taldera etortzeko arrazoietakoa bat. “Ikragarritzko gozamina da liburuaren autoreekin solastu ahal izatea. Gurea bezalako literatura txikiak duten abantailetakoa bat da hau. Espainian edo Frantzia, esaterako, pentsaezina litzateke euren literaturerako idazle nabarmenenak 10-15 laguneko taldetxo batekin euren herrian bertan bildu eta literaturaz solasean aritzea... Nire ustez oso eskertzekoa da euskal idazleen herrikoitasuna eta hurbiltasuna”.

Karmelok eta Anttonek ere gustura jasotzen dituzte idazleen bisitak. “Aberasgarriagoa da. Galderak egiten dizkiozu liburuari buruz, zalantzak galdetzen dizkiozu... Informazioa lehen eskutik jasotzen duzu”, aipatu du Karmelok. “Idazleari, liburuaz gain, beste gauza batzuk ere galdetzen dizkiogu. Adibidez, zer ohitura dituen idazteko, zer ibilbide egin duen, nola osatu duen liburua... Irakurtzen duzunean beti pizten dira horrelako galderak”, gaineratu du Anttonek. Denetarik idazleak ezagutu dituzte, guztiak interesgarriak. “Oso idazle ezberdinak ezagutu ditugu. Bai izaera aldetik, idazteko modu-gatik... Harkaitz Canok, adibidez, gauza asko kontatu zizkigun. Miren Agur Meabe ere etorri zen, esaterako. Muturrekoak dira, zeharo ezberdinak. Baina biak dira interesgarriak”, amaitu du.

Idazle beraientzat ere gustagarria izaten da irakurle taldeetara joatea, horrela bakarlanean egindakoa, pentsatutakoa konpartitzen dute. “Irakurleek galderak egiten dizkiete, eta idazleak beretik ematen du, nork bere estiloan. Solasaldi batzuk teknikoagoak dira, beste batzuk intimoagoak... Idazleentzat ere interesgarria da euren lana nola irakurtzen den ikustea, sentitzea...”, esan du Uxuek.

Gidari lana egitea da, hain zuzen, Uxueren lana, batez ere idazlea etortzen denean. “Nik beti eramaten ditut hizketa gai posibleak eta, idazlea datorrenetan, harentzako galderak. Baina taldekideei zeresana amaitzen zaizkionean baino ez dut gidoia erabiltzen. Saiatzen naiz jendea parte hartzera animatzen eta horretarako giro egokia sortzen”.

Uxueren lana eskertzen dute taldeko partaideek eta garrantzitsua dela aipatu dute. “Laguntza handia ematen du.

## IKASTURTE HONETAKO LIBURU ZERRENDA

Abenduak 9: *Haur Besoetakoa*. Jon Mirande.  
 Urtarrilak 13: *Erraiak* Danele Sarriguarterekin.  
 Otsailak 10: *Gela bat norberarena*. Virginia Wolf  
 Martxoak 10: *Amaren heriotzak libreago egin ninduen*  
 Mari Luz Estebanekin.  
 Apirilak 14: *Pasio hutsa*. Annie Ernaux.  
 Maiatzak 12: *Ni, Vera* Itxaso Martinekin.  
 Ekainak 9: *Nire amaren autobiografia*. Jamaica Kincaid.

BALEIKEKO blog komunitatean irakurle taldeak txoko propioa dauka. Bertan programazioa eta liburu bakoitzaren inguruko informazio gehigarria zintzilikatzen dute: kritikak, idazleei elkarrizketak, bitxikeriak, lotura interesgarriak... Horretaz gain, saio gehienen ondoren, taldekideren batekin irakurritako liburuaren inguruko eta idazlearekin izandako elkarrizketari buruzko gogoetatxoa ere idazten du. [baleike.com/irakurrimatte](http://baleike.com/irakurrimatte)

“Ez dezatela pentsatu etortzen ez direnek izugarritzko kritika literarioak egiten ditugula”

Urtean 10 liburu irakurtzen dituzte, eta idazleak, generoak eta gaiak bariatzen saiatzen dira.

Uxuek azken finean mamitu egiten ditu liburuak, horretan gu baino trebeagoa da eta markatu egiten ditu pausoak, aldaketak... Arrastoak ematen dizkigu. Bere presentzia lagungarria egiten zaigu”.

Irakurle taldeek bi modutara eragiten dio Uxueri: irakurle eta idazle gisa. “Irakurle eta gidari bezala, irakurzaletasuna eta letrikiko maitasuna sentitzen duen koadrila jatorra. Oso pozik joaten naiz taldera beti”. Idazle bezala, ordea, zerbait garrantzitsuak oharu dela kontatu du: “Ikasi dut irakurle askok irakurritakoaren inguruan hitz egin nahi izaten dutela idazlearekin, ez hari entzun bakarrik, eta hemendik aurrera idazle gisa gonbidatzen

banaute, gutxiago hitz egiten eta gehiago entzuten ahalegin-duko naiz. Eta lehen aipatu bezala, harritu nau irakurleek liburuak nola bizi dituzten ikusteak, zer serio hartzen duten irakurketa, zer fidelak diren idazlearekiko paktuan. Zintzoak izan behar dugu idazleok, irakurleak halakoak dira eta gurekin”, amaitu du. ■

# AZAROA

## DEIALDIAK

**Sendian.** Adineko mendeko senitartekoak zaintzen dituztenentzat prestakuntza: Emozioak kudeatzeko ikastaroa. (gaztelaniaz)

**Azaroak 14, 21, 24 eta 26.** (Gizarte Zerbitzuak 943862200).

**Azaroak 16-23** Xixili Eguna ospatzeko musika egitaraua.

**Azaroak 26-30** XIII. Klarinete Maratoia.

## ERAKUSKETAK

**Azaroak 13-30** Anton Egiguren.

**Azaroak 29-30** Jostalau Erakusketa. Ludotekan.

## AZAROA

### 7, ostirala

18:00 Alondegian, Errioxako ardo eta olioen dastaketa.

22:00 Aita Marin antzerkia, Bada Teatroaren *Traganarru*.

### 11, asteartea

18:00 Anitzen sarea: Gizarte

gaietako eragileak.

### 12, asteazkena

18:00 Anitzen sarea: Kultur elkarteetako eragileak .

### 13, osteguna

22:00 Aita Marin, zine forum: *Joven y bonita*

### 14, ostirala

19:30 Forondan, Gune elkartearen meditazio saioa.

### 16, igandea

12:00 Oxford aretoan txotxongiloak, *Inaugurazioa* Gus marionetas taldearen eskutik.

### 18, asteartea

19:00 Oxford aretoan, Maria Zubimendiren kontzertua.

### 19, asteazkena

18:00 Musika Eskolaren Xixili eguneko entzualdia

### 20, osteguna

18:00 Musika Eskolaren Xixili eguneko jaialdia

### 21, ostirala

20:00 Oxford aretoan, San Pedro Abesbatzaren kontzertua.

22:00 Aita Marin, *160 metros: una historia del rock en Bizkaia* filma.

### 22, larunbata, Xixili eguna

17:30 Maria eta Jose aretoan Udala Musika Bandaren kontzertua: *Gulliverren Bidaiak*.

### 23, igandea

11:00 Parrokian Meza Nagusia Beheko Plaza abesbatzak bere zaindari Xixiliren ohorez

### 24, astelehena

18:00etan Alondegian Katxalin, Gipuzkoako bularreko eta ginekologiako Minbizia duten Emakumeen elkartearen hitzaldia

### 25, asteartea

19:00etan, Alondegian kultur etxean, Baleikek antolatuta, *Gomezagoren gutuna* liburuauren aurkezpena.

### 26, asteazkena

19:00 Komentuan, kontzertua (XIII. Klarinete Maratoia).

### 27, osteguna

20:30 Alondegian, pintxo-pote

musikala (XIII. Klarinete Maratoia).

22:00 Aita Marin zine forum: *Ida*.

### 28, ostirala

19:00 Komentua, Klarinete laukoteen kontzertu-lehiaketa. (XIII. Klarinete Maratoia).

19:30 Forondan, Gune taldearen solasaldia; Adimen espirtuala irakasleen prestakuntzan Mondragon Unibertsitatea. Nerea Alzolarekin.

### 29, larunbata

Egurdian: euskararen aldeko ekitaldia.

16:00 Ubillosen, gaztetxoentzat Klarbira, Music & English.

20:00 Komentuan, Soka eta klarinete kontzertua: Weber-Brahms in Concert.

### 30, igandea

12:30ean Maria eta Jose Ikastetxeko aretoan, XIII. Klarinete Maratoiaren amaierako kontzertua.



# Galdona

## denda:

Mendaro marinela, 1  
tel.: 943 143 346

## biltegia:

Jose M<sup>a</sup> Korta Industriegunea  
Pab. A6.1, 2-5 mod.  
tel.: 943 861 117  
fax: 943 861 330

industriarako nahiz etxerako  
era guztietako material, tresna, pieza eta osagarriak



**(B)**

**Diru (B)eltza,  
gizarte-zerbitzu  
(B)eltzak**

**“A” gizartea  
lortzeko**

**eskatu beti faktura**

Faktura eskatzen duzunean, ziurtatzen ari zara zure diruaren zati bat guztion ongizaterako izango dela hezkuntza, azpiegiturak, enplegua eta gizarte zerbitzu bihurturik.

 **ZATOZ EKONOMIA  
GARDENERA**

[www.ekonomiagardena.net](http://www.ekonomiagardena.net)



 **Gipuzkoa**  
**BERRIA**



# Udazkena

Doinua: "Saltarina da txepetxa eta"

1.

**G**oizean goiztar zita jarrita  
kuadrilla elkartu gera  
zortzirak jota pausorik pauso  
goaz aldapan aurrera  
horretarako indartsu gaude  
deskantsatuta gainera  
mendi aldera abiatzeko  
udazkena aurkitzera

2.

**P**erretxikoen usaia nonbait  
sumatzen da bazterretan  
orkatzen batek jan ez baditu  
aurki ditzakegu bertan  
bildu ta bildu ari gerala  
elkarrekin berriketan  
pentsamenduak galdu zaizkigu  
basoaren koloretan

3.

**B**asotik irten itzaletatik  
aurreko tontor aldera  
eguzkia ta hego haizea  
izerdia kopetera  
burua jaso eta kentzean  
eskuarekin bixera  
hara! Usoak hegaka datoz  
hotzetikan epelera

4.

**B**aserritarrak hainbeste sagar  
zakura ditu jasoak  
ondorenean jasango ditu  
matxakaren erasoak  
tolarearen bueltan emanda  
itzulerako pausoak  
etxera pozik garamatzala  
murtio usai gozoak





Kalitatezko  
produktuak

Gipuzkoako  
Okelaren  
Ziurtagiria:  
GI-OKELA

ZUMAIA  
Basadi auzategia, 4.  
Tel./Faxa: 943 860 621

ZARAUTZ  
Salegi kalea, 14.  
Tel./Faxa: 943 890 215

# Juanjo Larrñaga harategia



# Harvest

English School

**25 URTEZ**  
INGELES A  
IRAKASTEN

- ✓ Matrikulazioa **dohain**
- ✓ Adin guztietarako jendearentzat
- ✓ Cambridge azterketen prestakuntza
- ✓ Atzerrirako programa bereziak





**SAMSUNG**  
 LEDa UE32H4500  
 • 32”  
 • SMART TV  
 • WIFiA barne

**299€**

**Baleike Kluba**  
 Erabili hemen bazkide klubeko txartela  
[www.baleike.com/baleikekluba](http://www.baleike.com/baleikekluba)

**-%5**



**BOSCH**  
 GARBIGAILUA  
 WAE 24367EE

**399€**

7 kg

1.200 b/m

**Baleike Kluba**  
 Erabili hemen bazkide klubeko txartela  
[www.baleike.com/baleikekluba](http://www.baleike.com/baleikekluba)

**-%5**



**399€**

**Baleike Kluba**  
 Erabili hemen bazkide klubeko txartela  
[www.baleike.com/baleikekluba](http://www.baleike.com/baleikekluba)

**-%5**

**BEKO**  
 HOZKAILUA  
 CN 23221

NO FROST

185 x 60 cm



**SIEMENS**  
 LEHORGAILUA  
 WT45W237EE  
 • Bero bonba  
 • A+ Energia eraginkortasuna

7 kg

**649€**

**Baleike Kluba**  
 Erabili hemen bazkide klubeko txartela  
[www.baleike.com/baleikekluba](http://www.baleike.com/baleikekluba)

**-%5**



**ENDAÑETA ZUMAIA**  
**ELEKTROGAILUAK**

Erribera, 8 Tel. 943 861 694  
[www.endanetazumaia.com](http://www.endanetazumaia.com)